

DIRU SARRERAK

Gure diru-sarrerak bezeroek gure produktua erabilgarria eta garrantzitsua dela ikustean sortzen dira. Festibaletan, kontzertuetan eta herriko jaietan lagunak edo senideak erraz aurkitzeko beharrak bezeroak ordaintzera bultzatzen ditu, batez ere segurtasuna, erosotasuna eta esperientzia hobea eskaintzen direlako. Bezero nagusiak festibal eta kontzertuetara joaten diren gazteak, lagun-taldeak eta hurrekin edo adinekoekin doazen familiak dira. Oro har, bezeroek 20 eta 40 euro artean ordaintzeko prest daude pultsera bakoitzeko, diseinuaren, materialen eta pertsonalizazio mailaren arabera.

Diru-sarrera nagusia sentsoredun pultseren salmentatik etorriko da. Modelo estandarraren prezioa 20 eta 25 euro artekoa izango da, eta modelo pertsonalizatuarena, material bereziekin, kolore desberdinekin edo diseinu eksklusiboekin, 30 eta 40 euro artekoa. Hasierako fasean, diru-sarreraren %70–75 iturri honetatik etorriko dela aurreikusten da. Horrez gain, festibal edo ekitaldi handietan pultserak alokairuan eskainiko dira egun baterako edo astebururako, erostea nahi ez duten erabiltzaileentzat. Alokairuaren prezioa 5–10 euro artekoa izango da eguneko, eta diru-sarreraren %10–15 sortuko du.

Etorkizunean, pultserarekin lotutako aplikazio edo zerbitzu gehigarriak ere eskainiko dira, hala nola talde handiak sortzeko aukera edo distantzia neurketak egitea. Zerbitzu horiek harpidetza bidez eskainiko dira, hilean 1–3 euroko prezioarekin, eta diru-sarreraren %5–10 suposatuko dute. Bestalde, alokairu sistema ere erabiliko da, batez ere festibal handietan eta kontzertuetan. Kasu horietan, erabiltzaileek pultsera sarrerarekin batera edo stand batean jasoko dute, eta ekitaldia amaitzean itzuli beharko dute. Prezioak 5 euro izango dira egun baterako, eta 8–10 euro asteburu osorako edo festibal osoarentzat, diru-sarreraren %10–15 sortuz.

Horrez gain, festibal antolatzaileei edo ekitaldi handiei pultserak beraien markarekin eskaintzeko aukera emango zaie. Prezioak negoziagarriak izango dira, eta diru-sarreraren %5 inguru sortuko dute. Enpresak festibal antolatzaileak, babesleak eta erabiltzaileak elkarren artean konektatuko ditu. Adibidez, babesleen markak pultseretan agertzea. Horren truke, enpresak %5–10 arteko komisioa jasoko du, guztizko diru-sarreraren %3–5 ingurukoa. Azkenik, publizitatea ere diru-sarrera iturri izango da, pultsera, ontzia, aplikazioa edo festibaleko standak iragarkien bidez erabiltzen direlako. Diru-sarrera horiek batez ere festibal handietan sortuko dira, eta guztiaren %3–5 izango dira.